

*Arabako erromanikoko litotipoak, konposizio litologiko  
bakanak eta antzinako harrobiak*  
*Litotipos, composiciones litológicas excepcionales  
y canteras antiguas del románico alavés*

Luís M. Martínez-Torres

SARRERA

Eraikuntzan erabil daitezkeen harrien kokalekua, banaketa eta ezaugarriak Geologia Ekonomikoa deritzon diziplinak aztertzen ditu. Zentzu zabalagoan, eraikuntzarako harrien azterketa, erauzketa, garraioa, prestaketa, ezarrera eta mantentzea Geologia Aplikatuaren barruko ikergaiak dira. Oraingo honetan, oso antzinako garaiak aztertzen ari garenez, eraikuntzako harriei buruzko "Geologia Aplikatu Historikoa" lantzen ari garela esan genezake.

Erromanikoko harginaren lehenengo zeregina harria aukeratzea zen, eraikitzekeo nahiz gai espiritualak zein metafisikoak irudikatu behar zituen gorabehera. Horretarako, lurraldea miatu, harria hautatu, harrobi bat ireki, silarri erdi arbastatuak atera, garraiatu, zizelkatu eta ipini egin behar zituen. Gaur egun geure begien aurrean ditugun eskulturak eta eraikinak burutu arteko harri-langintza horrek hainbat arkeologia-hondar utzi ditu, hala nola laginak, harrobiak, obra-hondakindegia, galtzadak, tresnak, eta abar. Harginaren pentsamolde erromanikoa eraikuntza-prozesu osoaren "hondarretan" ere ageri da, azken obran ez ezik. Prozesu hori ezagutu eta interpretatzeko, litologia eta horren banaketa geografikoa ebatzi behar dira lehenengo.

Garai geologiko berean sortutako harriak "litotipo" berean sailkatzen dira. Era horretan, eraikitzekeo harriei buruz hitz egitean, litotipo jakin baten gainean ari gara, harrobien bertan ikusi behar diren eta harriaren sorrerak berak eragindako osaera- edo kolore-aldaketak zehaztu gabe. Hau da, ez daude bi harri berdin, toki beretik hartu badira ere. Litotipoa dagoen unitate geologikoari "litotekto" deritza. Litotipoa eta litotektoa ezagututa, antzinako harrobien kokalekua zehaztu de-

INTRODUCCIÓN

La localización, distribución y propiedades de las rocas susceptibles de ser empleadas en construcción forman parte de la disciplina que se denomina Geología Económica. En un sentido más amplio, la exploración, extracción, transporte, preparación, colocación y conservación de las rocas constructivas puede englobarse en la denominada Geología Aplicada. Como en el caso que nos ocupa se analizan tiempos pretéritos, podríamos decir que aquí tratamos sobre "Geología Aplicada Histórica" referida a las rocas de construcción.

Con independencia de los fines constructivos, iconográficos, espirituales o metafísicos, el cantero románico, en primer lugar, debía seleccionar la piedra. Ello implica explorar el territorio, seleccionar la roca, abrir una cantera, extraer los carretales, transportarlos, tallarlos y colocarlos. Esta "manufactura de la piedra" ha dejado restos arqueológicos como catas, canteras, escombreras, calzadas, herramientas..., hasta concluir en la escultura o construcción que hoy observamos. La mentalidad románica del artista cantero no sólo se manifiesta en la obra final, sino también en los "restos" de todo el proceso constructivo. Para conocer e interpretar todo este proceso es necesario primeramente determinar la litología y su distribución geográfica.

Las rocas con una génesis común y de igual tiempo geológico se agrupan bajo el término "litotipo". Así, al hablar de rocas constructivas nos referimos a un determinado litotipo, sin especificar variaciones en composición o color derivados de la propia génesis de la roca y observables a pie de cantera. En otros términos, no hay dos piedras iguales aunque su procedencia sea idéntica. La unidad geológica donde se encuentra el litotipo se

zakegu, eta harriaren langintza-prozesua berreraiki, bai eta konponketa- zein mantentze-lanetarako harria atera ere, behar izanez gero.

Azterlan horretan, silarri eta eskultura erromanoetan erabilitakoak baino ez ditugu aipatuko. Harlangaitzari dagokionez, Gasteizko Elizbarrutiko ia 500 elizaren inguruan egindako lan batean (MARTÍNEZ-TORRES, 2005) frogatu zenez, aro guztietan erabilitako harlangaitzak eraikuntzaren inguruetik hartu ziren. Horregatik, ez diogu erreparatuko harlangaitz erromanoari.

#### ISURIALDEEN BANALERROA ETA LITOTEKTOAK

Euskal Autonomia Erkidegoan, ondo bereizten dira Kantauri eta Mediterraneo itsasoen uren banalerroak mugatzen dituen bi aldeak: iparraldean, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Aiara eta Aramaio haranak hartzen dituen isurialde kantauriarra, eta, hegoaldean, isurialde mediterraneoan, Ebroren isurialde ere esaten zaio, Arabaren gainerakoa hartzen duena. Ezarrera geomorfologiko horrek Behe Kretazeoko materialen berezko banaketa erakusten du, Albiar aroko detritu-sailena, zehatzago esateko. 1. irudian ikusten denez, "hareharri albiar" deritzon litotektoaren hegoaldeko muga bat dator uren banalerroarekin eta Araba iparraldeko mugarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntza erromano gehienak monolitologikoak dira; kantauriar isurialdean hareharri albiarrak dira nagusi, eta isurialde mediterraneoan, berriz, kareharri paleozenoak. Gipuzkoan eta Bizkaian, koherentzia handia islatzen da erabilitako harrien eta euren litoteknoen artean; hau da, materialek oso bide laburra egin dute. Araban, aitzitik, kareharri paleozenoren banaketa zabala izan da, eta lurralde historikoaren esparrua gainditu ere egin du, beherago ikusiko denez. Gainera, Arabako leihate eta portada batzuetan, berezitasun erromano bat hautematen da: hainbat litologia nahita konbinatu izana, alegia. Salbuespen horri buruz, beste atal batean mintzatuko gara.

#### ARABAKO LITOTIPOAK

Arabako erromanoak aldameneko lurralde hurkoetakoek baino aberastasun litologiko handiagoa erakusten du. Aurkitutako litotipoen artean, kareharri paleozenoak, hareharri albiarrak, hareharri miozenoak, Goi Kretazeoko kareharriak eta tobak ageri dira. Ho-

denomina "litotecto". Conocidos ambos, litotipo y litotecto, es posible delimitar áreas de procedencia donde se encontrarán las canteras antiguas. Localizadas éstas ya es posible reconstruir la "manufactura de la piedra" y, además, si es menester, puede extraerse piedra para restauración o conservación.

En este trabajo únicamente se alude a rocas empleadas en sillería y escultura románicas. Respecto a la mampostería, ya quedó probado en un trabajo previo sobre casi 500 iglesias de la Diócesis de Vitoria (MARTÍNEZ-TORRES, 2005) que siempre, en todos los tiempos históricos, los mampuestos proceden del entorno local de la construcción. Por todo ello, la mampostería románica no será considerada.

#### LA DIVISORIA DE AGUAS Y LOS LITOTEKTOAK

El País Vasco muestra dos zonas bien delimitadas por la divisoria de aguas Cantábrico-Mediterráneo: al Norte la vertiente cantábrica ocupada por Gipuzkoa, Bizkaia y los valles alaveses de Ayala y Aramayona, y al Sur la vertiente mediterránea o del Ebro ocupada por el resto de Álava. Esta disposición geomorfológica refleja la distribución de los materiales del Cretácico Inferior, más concretamente de la series detríticas de edad Albiense. En la figura 1 se observa cómo el límite meridional del litotecto "areniscas albienses" delinea la divisoria de aguas y el linde septentrional alavés.


Las construcciones románicas del País Vasco son mayoritariamente monolitológicas, con predominio de areniscas albienses en la vertiente cantábrica y de calizas paleocenas en la vertiente mediterránea. En Gipuzkoa y Bizkaia hay coherencia entre las rocas empleadas y sus litotectos, es decir, el transporte de materiales ha sido muy corto. En Álava, por el contrario, la distribución de calizas paleocenas ha sido importante, e inclusive ha trascendido al ámbito provincial, como se verá más abajo. Pero además, en algunos ventanales y portadas alaveses se reconoce una singularidad románica: la conjunción intencionada de varias litologías. Esta excepcionalidad se comentará en otro apartado.

#### LITOTIPOS ALAVES

El románico alavés presenta una mayor riqueza litológica que sus provincias hermanas. Los litotipos distinguidos han sido calizas paleocenas, areniscas albi-

1. irudia. Litotektoen (koloreetan) eta litotipoen (simboloak) banaketa Euskal Herrian. Zenbaki bidez bainbat litotipoen konbinazioak adierazten dira. Letra etzanez, Paleozenoko kareharrien barrobi erromaniko nagusiak. BI: Bilbo (Bizkaia); SS: Donostia (Gipuzkoa); VI: Gasteiz (Araba)

Figura 1. Distribución de litotectos en el País Vasco (en color) y de litotipos (símbolos). Con números se indican combinaciones de diferentes litotipos. En cursiva las principales canteras románicas en calizas paleocenas. BI: Bilbao (Bizkaia); SS: Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa); VI: Vitoria-Gasteiz (Araba / Álava)



riez gain, zenbaitetan, aragonitua eta igeltsua ere erabili ziren.

Paleozenoko kareharria, Arabako harri zuria, Arabako erromanikoan zehar maizen hautatutako litologia da. Oro har, partzialki dolomitizatutako kareharriak dira, izaera esparitikoa eta hedatu gabeko porositate moldikoa dituztenak. Oso fosiliferoak direlarik, zenbaitetan kareharri lumakelikotzat ere har daitezke, lamelibrankio zati ugari dituztenez gero. Zuritik horixka argira arteko kolore-tonuerak ageri ditu, eta hautsi berritan, ia zuriak diren tonuera berde eta horixkak, oso argiak. Egiatzatuta ez badago ere, nolabaiteko dolomitizazioa (dolomitak kaltzita ordeztzea, alegia) izan duenean, arrosa- eta laranja-kolore leunak erakusten ditu. Harrion iraunkortasun handia poroaren neurriak baino ez du aldarazten. Porositatearen batez besteko diametro ertain-handia bada, albeolizazio-prozesuak garatu daitezke. Paleozenoaren barruan, kareharriok Daniar eta Montiar estaietakoak dira, hots, duela 65,5 eta 57,9 milioi urte artekoak.

Kareharri paleozenoak oso aproposak dira zizelkatzeko, karekizko osaera mineralogikoa eta, batez ere, porositatea direla eta. Landutako gainazalaren akabera homogeneoa da, ez pikorra, ez poroa ezin hautemateko moduan. Ezaugarri horrek eta beraren kolore zurixkak

ses, areniskas miocenas, calizas del Cretácico Superior y travertinos, también denominados tobas. Además se emplean puntualmente los minerales aragonito y yeso.

Las calizas paleocenas, también conocidas como piedra blanca alavesa, son la litología preferida durante el románico alavés. En general son calizas localmente dolomitizadas, de carácter esparítico y con porosidad móldica no comunicada. Son muy fosilíferas pudiéndose considerar localmente como calizas lumaquéllicas por su alto contenido en fragmentos de lamelibranquios. El color de alteración es blanco a ligeramente amarillento, y en fractura fresca muestra tonalidades verdes y amarillentas cremas muy claras, casi blancas. Aunque no siempre se verifica, cuando hay un cierto grado de dolomitización (reemplazamiento de calcita por dolomita) se observan colores rosas y naranjas suaves. Su grado de durabilidad es muy alto, sólo dependiente del tamaño del poro. Si el diámetro medio de la porosidad es medio-alto, pueden desarrollarse procesos de alveolización. Dentro de la época paleocena estas calizas se distribuyen entre los pisos geológicos Daniense y Montiense, esto es, entre 65,5 y 57,9 millones de años.

Las calizas paleocenas son muy agradecidas en la talla por su composición mineralógica calcárea y, sobre todo, por la porosidad. La superficie final labrada

asko nabarmentzen dituzte argi-ilunak; horrexegatik izan ziren harriok hain preziatuak, eskulturaren arloan. Aitzitik, xede horretarako erabilitako beste litologia batzuek –hareharri albiarrak eta miozenoak, esaterako– bolumena nabarmentzea eragozten duten tonuera arre eta berdexka margulak eta ehundura pikortsua ageri dituzte, landu ostean.

Hilarrigile erromatarrek asko erabili zuten Arabako harri zuria, I. eta IV. mendeen artean, eta erromanikoan berriro heldu zitzaion joera horri, baina, geroago, gotikoaren amaieran, haren erabilera gutxitu egin zen, harrobiak agortuta zeudenez gero (MARTÍNEZ-TORRES, 2007). Erromanikoan zehar, Arabako mugetatik harago ere erabili zen harri mota hori. Azterketa petrografikorik ezean, eta begirada bat baino egin ez bada ere, lehenagoko lanetan ere aipatu da Arabako kareharri paleozeno zuriak Donejakue Bidean dauden hainbat elizatan –hala nola San Juan de Ortega (Burgos), Padilla de Abajo (Burgos) eta Carrión de los Condes (Palentzia), eta hegoalderago, Avilako San Vicente– erabili zirelako aukera (MARTÍNEZ-TORRES, 2005 eta 2009b).

Erromanikoan zehar litologia horrek pizten zuen interes handiak garraiorako azpiegiturak ere garrantzitsua izan behar zuela pentsarazten du, eta harreman interesgarria iradokitzen du harria ateratzen zuten harginen eta eskultoreen artean. Erauzketa-toki garrantzitsuenei eta harri mota hori ustiatzeko sistemei buruz, geroagoko atal batean mintzatuko gara.

Hareharri albiarrak (duela 112 eta 99 milioi urte artean eratuak) eta hareharri miozenoak (duela 24 eta 5 milioi urte artekoak) euren litotektotik hurbil banaturik ageri dira, eraikin erromaniko monolitologikoe-tan. Albiarrekoak silizeoak dira eta zementu silizeoa dute; horrexegatik dira litotiporik iraunkorrena, baina zizelkatzen zailena eta urragarriena ere bai. Hareharri miozenoek buztin-itxura dute zatikatzean, eta kare-zementua dute. Oso moldakorrak dira zizelkatzeko, baina baita oso aldakorrak ere. Bi hareharrion gainazal landuek ehundura porotsua eta argi-ilunak lausotzen dituen tonuera arreak erakusten dituzte.

Erromanikoaren garaian erabili ziren hareharri albiarren eta miozenoen harrobiak ez dira zehazten errazak, duela gutxira arte ustiatu direnez, nekez esleitu dakiekeelako data zehatza. Gaur bistan dagoen zuloa azken erauzketaren ondorioa da, agian orain dela oso gutxi egindakoa. Hareharriok erabiliz eta berorien litotektoetatik hurbil egin diren eraikin erromaniko batzuk aipatzearen, hor ditugu, besteak beste, Amamio eta Tobera herri hustuetako elizak ziren San Joan (2. irud.) eta Andre Maria (3. irud.), gaur baselizak dire-

es homogénea, no siendo perceptible ni el grano ni el poro, lo que unido a su color blanquecino, remarca intensamente el claroscuro, lo que las hizo muy solicitadas en escultura. Otras litologías empleadas con ese fin como las areniscas albienses y miocenas, por el contrario, muestran una superficie final labrada con textura granular y tonalidades ocres y verdosas pálidas que no destacan el volumen.

La piedra blanca alavesa fue ampliamente empleada por los lapicidas romanos entre los siglos I y IV, posteriormente retomada en el románico y, más tarde, al finalizar el gótico, decreció su consumo por agotamiento de las canteras (MARTÍNEZ-TORRES, 2007). Su empleo durante el románico traspasa las fronteras de Álava. A falta de análisis petrográficos, con tan sólo un reconocimiento de *visu*, se ha comentado en trabajos previos (MARTÍNEZ-TORRES, 2005 y 2009b) la posibilidad de que las calizas blancas paleocenas alavesas se emplearan a lo largo del Camino de Santiago en San Juan de Ortega (Burgos), Padilla de Abajo (Burgos) y Carrión de los Condes (Palencia), y más al sur, incluso en San Vicente de Ávila.

El interés durante el románico por esta litología, implica una importante infraestructura de transporte, además de una interesante relación entre canteros extractores y escultores. En un apartado posterior serán comentados los principales centros de extracción y sistemas de explotación de esta roca.

Las areniscas albienses (entre 112 y 99 millones de años) y las areniscas miocenas (entre 24 y 5 millones de años), en las construcciones románicas monolitológicas se distribuyen cerca de su litotecto. Las primeras son silíceas con cemento silíceo y por ello el litotipo más durable, pero también más abrasivo y costoso de tallar. Las areniscas miocenas presentan una fracción arcillosa y el cemento es calcáreo. Son muy agradecidas a la talla, pero muy alterables. Ambas areniscas presentan superficies talladas de textura porosa y tonalidades ocres que difuminan el claroscuro, muy al contrario de lo que sucede con las calizas paleocenas blancas, que lo resaltan.

Las canteras antiguas en areniscas albienses y miocenas de edad románica son difíciles de determinar pues se han explotado hasta fechas recientes y, por ello, son difíciles de asignar a una época determinada. El hueco hoy observable corresponde a la última extracción y ésta puede ser muy reciente. Como ejemplo de construcciones románicas construidas con estas areniscas y cercanas a sus respectivos litotectos, citaremos las pequeñas iglesias, ahora ermitas, de los despoblados de San Juan de Amamio (fig. 2) y Santa

nak. Bietan ere, bisitari asko ez dituzten arren, agerian daude harrion mugak zein onurak. Amamion, hareharri albiarren gogortasunak eta zizelkatzeko zailtasunak baldintzatu egin dute silarrien eskuairatzea, eskulturen ugaritasun urria eragin ez ezik. Toberan, hareharri miozenoek, euren osaera mineralogikoari eta granulometriari esker, ondo amaitu eta eskuairaturiko silarriak lortzeko eta xehetasun gehiagoko eskulturak egiteko aukera ematen dute.

Goi Kretazeoko kareharriak (99 eta 65,5 milioi urte artean dituzte) Arabako mendebaldeko eremuan erabili dira, eskualde kantauriarra eta Kuartangoko eta Urkabustaizko udalerriak hartzen dituen lurraldean, hain zuzen ere. Silarriak eta hilarriak egiteko egokiak dira, baina nekez atera daitezke beraietatik silarriak, maskor itxurako haustura dutenez, geruzen lodiera oso txikia delako. Horrexegatik, barruko orriak bertika-

María de Tobera (fig. 3). En ambas ermitas, aunque no sean muy visitadas, se aprecian las limitaciones y bondades de estas rocas. En Amamio las areniscas albienses denotan su dureza y dificultad a la talla, condicionando el escuadrado de los sillares y la poca profusión en las esculturas. En Tobera las areniscas miocenas, más amables por composición mineralógica y granulometría, permiten labrar sillares bien terminados y escuadrados, y una escultura más detallista.

Las calizas del Cretácico Superior (entre 99 y 65,5 millones de años) se emplean en el sector alavés occidental, más concretamente en la comarca cantábrica y los ayuntamientos de Kuartango y Urkabustaiz. Son aptas para sillarejos y lápidas, pero difícilmente pueden extraerse sillares, pues además de tener una fracturación concoide el espesor de las capas es muy reducido. Por este motivo suelen colocarse con la laminación interna

2. irudia. Amamioko San Joan, Araia eta Albeiz bitartean, Asparrenako Udalean, herri horietako hareharri albiarrekin eraikia /

Figura 2. San Juan de Amamio, entre Araya y Albéniz, en el ayuntamiento de Aspárrena, construida con areniscas albienses procedentes de esas localidades





3. irudia. Toberako Andre Maria, Santurderen ondoan, Berantevillako Udalean, inguruko harebarri miozenoekin eraikia /  
Figura 3. Santa María de Tobera, junto a Santurde, en el ayuntamiento de Berantevilla, construida con areniscas miocenas procedentes del entorno

lean dituztela ipini ohi dira, xaflatu gisa. Tonuera gris urdinxka ilunetatik beltzerainokoak izaten dituzte, eta pieza batzuk leundu egin daitezke. Anda herrian, litologia horren antzinako harrobi interesgarri bat dago, baina, zoritxarrez, "eraberritu" egin dute, duela gutxi. Edonola ere, harrobiotan erromanikoaren ostean ere aritu ziren jardunean, eta, beraz, oso zaila da bertako hutsuneari data jartzea.

Toba deritzen harriak gangen plementuetan erabili izan dira batez ere, garai guztietan. Are gehiago: hainbestekoa izan zen erauzketa, ezen litologia horren antzinako harrobien aztarna gutxi batzuk baino ez baitira geratzen. Gehikinetan eta teilatu-hegal erromanikoren batean ere ikus ditzakegu. Baina, ildo horri helduta, badago eliza bat aipamen berezia merezi duena, bere balio artistikoagatik eta kokaleku bitxiagatik ez ezik, osoan tobaz egina delako: Ribera Gobiaran eliza (4. irud.), hain zuzen ere.

Arabian ezagutzen ditugun litotipoen artean, aparteko bi nabarmendu ditzakegu, mineralak, biak ere:

vertical, como un chapeado. De tonos gris azulados oscuros a negros, algunas piezas admiten el pulido. Una interesante cantera antigua de esta litología se localiza en Anda pero lamentablemente ha sido "restaurada" en fechas recientes. En cualquier caso estas canteras estuvieron activas con posterioridad al románico y el hueco resultante es difícil de datar.

Los travertinos, popularmente conocidos como tobas, han sido predominantemente utilizados en los plementos de las bóvedas en todos los tiempos. Es más, puede afirmarse que la extracción ha sido de tal envergadura que apenas quedan vestigios de canteras antiguas en esta litología. También son visibles en recrecidos y algún alero románico. Pero hay una iglesia a resaltar que, además de su valor artístico y su peculiar emplazamiento, está íntegramente construida de travertino: Ribera de Valdegovía (fig. 4).

Entre los litotipos diferenciados en Álava hay dos singulares que corresponden a minerales: el yeso y el aragonito. En una ventana de Delika (fig. 5) se conser-



4. irudia. Riberako eliza, Gaubean, tokiko trabertinoekin eraikia, portada izan ezik, kareharri tertziarioekin eginda dago eta /  
 Figura 4. Iglesia de Ribera de Valdegovía construida íntegramente con travertinos locales a excepción de la portada de calizas terciarias

igeltsua eta aragonitua. Delikako leiho batean (5. irud.) bertako igeltsuzko bi silarri daude. Igeltsu mikrokristalinoa itxitura-modura ere erabili zen, egiturazko xederik gabe, leihate erromaniko askotan. Giliernan eta Langraiz Okan oraindik ikus daiteke mineral mota hori, nahiz eta leiho gehienak beirazko leihoekin itxi edo argamasaz zarpiatuz itsutu ziren. Igeltsuok tokian bertan erazitakoak izan daitezke, Araban mineral hori ez baita arraroa.

Aragonitua, kare-onize ere esaten zaiona, mineral ezegonkorra da, kaltzita bihurtzen baita, jatorrizko maklari eusten badio ere. Aprikanon (5. irud.), Uribarri Kuartangon eta Morillasen aurkitu ditugun aragonitopieza bakanak haitzuloetan osatutako estalagmita-koladetatik ateratakoak dira, ziurrenik. Aragonitua oso erraz zizelkatzen eta eroso leuntzen da, eta akabera oso deigarriak ahalbidetzen ditu. Eskultore erromanikoak mineral hori aukeratzera bultzatu zituzten arrazoiak misterioitsu samarrak dira, beraren jatorria ezohikoa da eta.

van dos sillares de yeso de procedencia local. El yeso microcristalino también se utilizó como cerramiento, sin fines estructurales, en muchos ventanales románicos. Todavía se conserva en Guillerna y Nanclares de la Oca, aunque en su mayoría las ventanas están cerradas con posterioridad al románico con ventanas de vidrio o cegadas con raseados de argamasa. La procedencia de los yesos puede ser local pues en Álava este mineral no es extraño.

El aragonito, también conocido como ónice calcáreo, es un mineral inestable que se trasforma en calcita, pero conservando el maclado original. Las escasas piezas de aragonito observadas en Aprikano (fig. 5), Ullíbarri de Kuartango y Morillas, muy probablemente proceden de coladas estalagmíticas formadas en cuevas. El aragonito se caracteriza por una talla muy fácil y un pulido muy cómodo con resultados muy llamativos. La elección de este mineral por los escultores románicos es un tanto misteriosa por su origen singular. En cualquier caso, su procedencia puede ser local.

Toben, igeltsuaren eta aragonitoaren adin geologikoa nahiko txikia da: Kuaternarioa (duela 1,81 milioi urtetik gaur arte), alegia.

#### KONPOSIZIO LITOLÓGIKO BAKANAK

Arabian eta horren barruan kokaturik dauden Trebiñu lurralde burgostarrea eta Bizkaiko Urduñan –Gasteizko Elizbarrutiaren baitakoak biak–, kareharri paleozoen erabilera da bertako erromanikoaren berezitasunetako bat. Baina, zalantzarik gabe, kontinente osoan salbuespena den berezitasun interesgarriago bat nabarmendu behar dugu: leihateetan eta portadaren batean, mota ezberdinetako harriak nahita konbinatu izana, alegia, batez ere Kuartangoko eta Urkabustaizko udal-barrutietan.

Inguru horretako 22 elizatan baliatu ziren harrietako bakoitzaren onurak, eskulturarekin loturik, bai eta kontraste kromatikoko biziak dituzten konbinaketa litologikoak lortu ere. Otoberrengo elizan, gainera, harriak koloreen arabera daude konbinatuta, beraien egiturazko ezaugarriak ere aintzat harturik. (MARTÍNEZ-TORRES, 2005). Lehenengo irudian, hautemandako konbinazio ezberdinak zenbakiturik ageri dira. Bertan, 7 zenbakiaz seinalatuan, Beluntzako elizan (6. irud.), esaterako, lau litotipo ohikoenak konbinatzen dira: kareharri paleozenoak, hareharri albiarrak, hareharri miozenoak eta Goi Kretazeoko kareharriak, alegia.

1. motako konbinazioak (kareharri paleozenoak eta hareharri albiarrak) Arespalditzan ikusi dira; 2. motakoak (kareharri paleozenoak eta hareharri miozenoak), Belloxinen, Valluerca, Santurde eta Leziñana Okan; 3. motakoak (kareharri paleozenoak eta Goi Kretazeoko kareharriak), Oiardon, Uzkiñan, Legardan eta Lopidan; 4. motakoak (kareharri paleozenoak, Goi Kretazeoko kareharriak eta igeltsua), Delikan; 5. motakoak (kareharri paleozenoak, hareharri albiarrak eta Goi Kretazeoko kareharriak), Goiurin, Katadianon, Lezaman, Zuatzu Kuartangon, Miñanon, Untzagan, Otoberren eta Lubinaon. 6. motakoak (kareharri paleozenoak, hareharri albiarrak, hareharri miozenoak eta Goi Kretazeoko kareharriak), Astulezen eta Subijana Morillasen; 7. motakoak (kareharri paleozenoak, hareharri albiarrak, hareharri miozenoak eta Goi Kretazeoko kareharriak), Beluntzan; 8. motakoak (kareharri paleozenoak, hareharri albiarrak, hareharri miozenoak eta aragonitoa) Uribarri Kuartangon, eta 9. motakoak (kareharri paleozenoak, hareharri albiarrak, Goi Kretazeoko kareharriak eta aragonitoa), Aprikanon. 5. eta 6. irudietan, konbinazio horien mapa litologikoko batzuk ageri dira.

La edad geológica de los travertinos, el yeso y el aragonito es reciente, esto es, Cuaternario (entre 1,81 millones de años y el presente).

#### COMPOSICIONES LITOLÓGICAS EXCEPCIONALES

El románico de Álava y sus enclaves, el burgalés Treviño y el vizcaíno Orduña, pertenecientes a la Diócesis de Vitoria, se caracteriza por el empleo de calizas paleocenas. Pero sin duda la excepcionalidad más interesante a escala continental es la combinación intencionada de diferentes rocas en ventanales y alguna portada, sobre todo en los ayuntamientos de Kuartango y Urkabustaiz.

En 22 iglesias se aprovechan las bondades de cada roca con fines escultóricos, resultando una combinación litológica con fuertes contrastes cromáticos. Además en la iglesia de Hueto Abajo las rocas se combinan cromáticamente y se aprovechan sus características estructurales (MARTÍNEZ-TORRES, 2005). En la figura 1 se indican con números las diferentes combinaciones observadas. Por ejemplo, con el número 7 se indica la iglesia de Beluntza (fig. 6), donde se combinan los cuatro tipos más característicos: calizas paleocenas, areniscas albienses, areniscas miocenas y calizas del Cretácico Superior.

